| Idatz ezazu hemen zure konfidentzialtasun-gakoa | PD | CC |
|---|---|---|
| | | |

**NEKAZARITZA ETA BASOZAINTZAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTEN ZERRENDA SORTZEKO DEIALDIA**

BIGARREN ARIKETA. PROBA TEORIKO-PRAKTIKOA. Gehieneko puntuazioa: 20 puntu.

1.- Erantsitako Eraztun Berdearen mapa mutuko puntu gorrien gainean zenbakiak jarriz, seinala itzazu zerrenda honetako toponimoak. Gehieneko puntuazioa: 2 puntu; 0,1 puntu erantzun zuzen bakoitzeko.

*1 Zapardiel erreka*
*2 Duranzarreko aintzira*
*3 Santo Tomas erreka*
*4 Torrogiko erreka*
*5 Larreganeko aintzira*
*6 Gobeuko zubia*
*7 Requera erreka*
*8 Zubigarai*
*9 Eskalmendiko zubia*
*10 Errekaberri erreka*
*11 Aztegietako zubia*
*12 Zurbanoko zubia*
*13 Zarauna erreka*
*14 Lezeako aintzira*
*15 Olarizu erreka*
*16 Nebera gaina*
*17 Ihurreko zubia*
*18 Errekaleor erreka*
*19 Atxako aztarnategia*
20 *Ehari edo Perretxin erreka*

2.- 2. planoan, kontuan izanik 1/6000 eskalan egina dela, kalkula ezazu A, B, C, D eta E puntuak marra zuzenekin lotzetik ateratzen den pentagonoaren perimetroaren luzera. Emaitza kilometrotan eman, hiru dezimalekin. Puntu 1

3.- Plano beraren gainean, sortutako pentagonoaren azalera zenbatetsi. Emaitza hektareatan eman, bi dezimalekin. Puntu 1

4.- Salburuko parkeko landaredia zaintzeko sega-lan eta sasi-garbitzeen kronograma garatu, modu ordenatuan adieraziz lan-motak, helburua, maiztasuna, lokalizazioa, gauzatze-xehetasun eta -baldintza teknikoak, eta erabili beharreko baliabide materialak.
Gehieneko puntuazioa: 5 puntu

5.- Deskriba ezazu baso autoktonoa ezartzeko basoberritze-prozesua —dentsitatea: 2.500 landare / hektarea—; 6.000 metro koadroko nekazaritza-soroa, Zabalganeko parkearen ondoan, duela 5 urte abandonatua, albitz-belarrak hartua—, honako hauek adieraziz:

- Erabiliko diren zuhaitz-espezieak (gutxienez hiru) eta zuhaixka-espezieak, honako hauek zeharturik: aurkezpena, tamaina, proportzioa eta landare-kopurua, espezie bakoitzeko.
- Adierazitako lanaren kronograma: aldez aurreko lanak, markoa, banaketa, prozesuaren deskribapena eta gauzatzearen xehetasun teknikoak eta jarraipena —baliatuko diren makinak eta baliabide materialak barne—.

Gehieneko puntuazioa: 5 puntu